

6 / 06

# Irizpena

GIZARTE AURREIKUSPENERAKO  
EUSKADIKO BATZORDEA  
ARAUZEN DUEN

Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2006ko abenduak 19



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico  
y Social Vasco

# Irizpena

## I AURREKARIAK

2006ko azaroaren 7an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren idatzia heldu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea. Idatzia medio, Sailak txosten bat egitea eskatu zuen, Gizarte Aurreikuspenenerako Euskadiko Batzordea arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa; eta hori, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.d) artikuluari jarraiki.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.23 artikuluari jarraiki, autonomia erkidegoak eskumen eskusiboa dauka Gizarte Segurantzari sartu gabe dauden mutualitateen gainean. Eskumen horri jarraiki, Eusko Legebiltzarrak urriaren 27ko 25/1983 Legea onartu zuen, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzkoa (azaroaren 7ko EHAA, 163. zk.). Lege horren bitartez legegintza-esparru berri bat ezarri zen. Zertarako? Irabazi-asmorik gabeko erakunde jakin batzuei, alegia, bazkideen bizia, baliabideak edo jarduerak arriskuan jar ditzakeen edozein gertakiriren aurrean babes eskaintzea helburu duten erakundeei, lege-esparrua zabaltzeko. Enplegu-pentsioetako funtsen jarduerari eta ikuskaritzari buruzko ekainaren 3ko 2003/41 CE Zuzentarauaren xedea da enplegu-pentsioetako funtsak osatzen dituzten erakundeei kudeaketa eraginkorra eta finantza-kaudimena izaten laguntzea; pentsioak izan daitezke sektorialak edo enpresek sustatutakoak, eta, betiere, langile autonomoei parte hartzeko aukera eman behar die.

Gauzak horrela, 2006ko urtarrilaren 10ean, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriarako Plana onartu zuen, epe luzerako hausnarketa estrategiko gisa eta helburu hauekin: Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-erronka berriei egokitutako Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren eredia ezartzea eta gaur egungo esparrua Europako Batasuneko jarraibideei egokitzea. Plan horren lehentasuna da enplegu-sistemak sendotzeko jarduerak zehaztea. Horretarako, aurreikuspen osagarriari sartu dituzte kanpoan zeuden eta gerora begira aurreikuspen horren premia handiagoa izan dezaketen sektoreak. Hori egin dute lege-esparru bat

eta behar bezalako sariak ezartzera bideratutako neurrien bitartez; neurri horietako bat da Gizarte Aurreikuspenerako Euskadiko Batzordea sortzea.

Berehala, Gizarte Aurreikuspenerako Euskadiko Batzordea arautzen duen Dekretu Proiektuaren kopia bana bidali genien batzordekide guztiei, proposamenak egin eta iritzia eman zitzaizten, gero, proposamen eta iritzi horiek Lan Batzorde egokiari helarazte aldera, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Antolakuntza Araudiari jarraiki.

Gizarte Garapeneko Batzordea 2006ko azaroaren 23an bildu zen, Irizpenaren Aurreproiektu proposamen bat eztabaidatze aldera. Irizpen proiektua azaroaren 27an onartu zen eta EGABeko Batzarrari helaraziko zaio, 2006ko abenduaren 19an eta LABen Boto partikularrarekin onartzen da.

## II EDUKIA

Gizarte Aurreikuspenerako Euskadiko Batzordea arautzen duen Dekretu Proiektuaren testuak atal hauek dauzka: hamar artikulua, bi xedapen gehigarri eta hiru azken xedapen.

### Hitzaurrea

Hitzaurreak dio Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Planaren helburua dela pentsio osagarriak langile guztiek izatea, enplegu-sistemak medio eta negoziazio kolektibo elementu dinamizatzaile hartuta. Horregatik, Eusko Jaurlaritza ahalegindu da, batez ere, araudien eta sustapenaren alorrean, pentsioen bigarren euskarri sendo bat ezartzeko aukera eman dezaketen baldintzak sortzen.

Euskadiko gizarte-babes osagarriko sistema sendoa da, baina, datozen urteetako garapena handia izango denez, komeni da tresna egoki bat edukitzea, Gizarte Aurreikuspenerako Euskadiko Batzordea, alegia, Planean agertzen den aholku- eta bilgune-organoa.

Halaber, hitzaurreak dio Gizarte Segurantza sistemaren eta horren osagarri den sistemaren arteko lotura estua dela eta, horregatik, komeni dela Gizarte Aurreikuspenerako Euskadiko Batzordeak, hausnarketan, analisisian eta jarduera-eremuan, lehen euskarri esaten zaion Gizarte Segurantza ere aintzat hartzea.

### Xedapenak

**1. artikulua** dio Dekretuaren helburua dela Gizarte Aurreikuspenerako Euskadiko Batzordearen funtzioak eta osaera ezartzea eta arautzea.

**2. artikulua**ren arabera, Batzordea hausnarketa-organoa da, anitza eta iraunkorra; Batzordeak biltzen ditu erakunde publikoak, agente sozial eta ekonomikoak, gizarte-aurreikuspenaren sektorea eta gai horretan adituak diren pertsonak. **3. artikuluan** Batzordearen funtzioak daude zehaztuta. Hala, zereginetako bat da proiektuen berri ematea eta analisia eta ebaluazioa egitea, Gizarte Aurreikuspeneko Sistema-rekin zerikusia duten proiektuena eta Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Planean bildutako proiektuena, hain zuzen. Beste zeregina da gutxienez bi urtean behin txosten bat aurkeztea. Txostenak gai hauen inguruko balioespena eduki behar du, gutxienez: bilakaera demografikoa, gizarte-aurreikuspenaren finantza-ikuspegia, enplegu-sistemen ezarpen-maila eta Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Planaren betetze-maila.

**4. artikuluan** Batzordeak izango dituen laguntza-tresnak agertzen dira, zehazki: Gizarte Segurantza Osagarriaren Behatokiko euskarri tekniko (funtzio jakin batzuk dauzka egokituta) eta batzorde tekniko espezializatu bat sortzeko aukera, landu behar den gaiak hala eskatzen duenean.

**5. artikulua**k dio Gizarte Aurreikuspeneko Euskadiko Batzordea Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxikita egongo dela eta Sail horren bulegoetan izango duela egoitza. Halaber, Batzordearen osaera zehazten du: lehendakaria, lehendakariordea eta hogeiki kide. Kideak hauek izendatuko dituzte: bost Herri Administrazioak, bost autonomoen kolektiboko federazioek eta ordezkariak, bost sindikatuen ordezkariak eta bost enpresen ordezkariak.

**6. artikuluar**i jarraiki, Batzordea lehendakariak deituta bilduko da, eta **7. artikulua**ren arabera, idazkari tekniko bat izango du; idazkariak lehendakariak agindutako zereginak edo Batzordearen Funtzionamendu Araudiak zehaztutakoak beteko ditu.

**8. artikulua**k dio akordioak bertaratutakoen gehiengo soilarekin adostuko direla.

**9. artikuluan** zehazten da funtzionamendu-gastuak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako aurrekontuekin ordainduko direla; kontzeptua izango da gizarte-aurreikuspenaren sustapena. Azkenik, **10. artikuluan** batzordekideek jaso ditzaketan dietak eta kalte-ordainak daude ezarrita.

**Lehen xedapen gehigarriak** dio Dekretua indarrean jarri eta sei hilabeteren buruan Gizarte Aurreikuspeneko Euskadiko Batzordeak bere Funtzionamendu Arautegia onartuko duela; Arautegi horretan, batzordekideek funtzionatzeko modua, egutegia eta lan-egitaraua zehaztuko dituzte. **Bigarren xedapen gehigarriaren** arabera, Dekretua indarrean jarri eta hilabeteren buruan, 5. artikuluan aipatu instituzioek eta erakundeek dagozkien kideak izendatuko dituzte.

Lehenbiziko azken xedapenak erregimen supletorioa zein den azaltzen du; **bigarrenak** Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari ematen dio Dekretu hau garatzeko eskumena; eta **hirugarrenak** Dekretuaren indarrean jartzea zehazten du.

### III IRITZIAK

#### III.1. Aurrekariak

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, 2006ko urtarrilaren 10ean, Gizarte Aurreikuspen Osagarriako Plana onartu zuen. Planaren helburua da, proiektu honen hitzaurrean adierazi bezala, “pentsio osagarriak langile guztiek izatea, enplegu-sistemak medio eta negoziazio kolektiboa elementu dinamizatzaile hartuta”. Planaren oinarri diren printzipioetako batek hau dio: “Administrazioari dagokio enplegu sistemak garatzeko esparru egoki bat sortzea, hauen lehentasunezko helburu direnak kontuan hartuta, alegia, errenta ertain eta ertain apaleko mailak”.

Gaur egun, oraindik ez da garatu araudirik Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Planaren inguruan. Ordea, bi Dekretu Proiektu aurkeztu dira:

- batetik, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen jarduera jakin batzuk arautzen dituen Dekretu Proiektua;
- eta bestetik, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak medio osatutako gizarte aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko dirulaguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektua.

Dekretu Proiektu horiek oraindik ez dira onartu eta EGABek eman zuen bere iritzia, zegokionean (3/06 Irizpena<sup>1</sup> eta 4/06 Irizpena<sup>2</sup>). Hala ere, orain, Gizarte Aurreikuspeneko Euskadiko Batzordearen funtzioak eta osaera ezartzeari eta arautzeari buruzko hirugarren Dekretu Proiektua aurkeztu digute.

#### III.2. Dekretu Proiektuaren gainean

EGAB harrিতuta dago Gizarte Aurreikuspeneko Euskadiko Batzordea arautzeko planteamenduarekin, eta ez dago planteamendu horrekin ados, arrazoi hauengatik:

- Batetik, Gizarte Aurreikuspen Osagarriako Planean iragarritako Gizarte Aurreikuspeneko Euskadiko Batzorde gisa aurkezten den arren, Dekretu Proiektuan egokitzen zaizkion izaera, osaera eta funtzioen arabera, aholku-organoa delako, eta hori ez datorrelako bat Gizarte Aurreikuspen Osagarriako Planaren helburuekin.

<sup>1</sup> 3/06 Irizpena, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen jarduera jakin batzuk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko.

<sup>2</sup> 4/06 Irizpena, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak medio osatutako gizarte aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko dirulaguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.

— Bestalde, gizarte-aurreikuspenaren arautzearen funtsezko alderdiak zehaztu gabe daudenez eta, bereziki, Gizarte Aurreikuspen Osagarrirako Planaren gutxiengoak garatu gabe, ez delako egokia aholku-organo bat egituratzea. Era horretako organo bat sortzeko aukera aztertu aurretik araudia behar bezala garatu behar da.

Edonola ere, gai horretan aplikatu beharreko araudia behar bezala garatu arte, eta ezinbestekoa den arte, ez da gomendagarria kontsulta-organoen kopurua areagotzen jarraitzea.

#### IV ONDORIOAK

Aholku-organoak emandako iritzia kontuan hartuta, EGABi ez zaio egokia iruditzen Gizarte Aurreikuspeneko Euskadiko Batzordea arautzen duen Dekretu Proiektua bideratzea.

Bilbon, 2006ko abenduaren 19an

Lehendakariaren oniritzia  
Antxon Lafont

Idazkariaren oniritzia  
Javier Muñecas

## LAB SINDIKATUAREN BOTO PARTIKULARRA

Gizarte-aurreikuspenaren Euskal Kontseiluaren sorrera Eusko Jaurlaritzak aurtengo urtarrilaren 10ean onetsitako Gizarte-aurreikuspen Osagarriaren Planean jadanik ezarritako jarduketak neurria dugu.

Gogorarazi behar dugunez, Gizarte-aurreikuspen Osagarriaren Planaren xedea “pentsioen bigarren ardatza” bezala ezagututakoa enplegu-sistemen bidez bultzatu eta sustatzea da, hau da, gizarte-babesaren alderdi subsidiarioa da.

Horrenbestez, plan hori onetsi eta abian jartzeko, gaur egungo esparru autonomikoa gizarte babesteko politika propioa garatzeko ez dela gai aitortu behar da. Izan ere, gizarte babesteko bigarren esparruan eta osagarrian kokatzen da. Azken batean, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-aurreikuspen Osagarriaren Plan horren bidez ezinezkoa izango da Gizarte Babesteko Euskal Esparrua eratzea.

Bestalde, Gizarte-aurreikuspenaren Euskal Kontseilua gizarte-aurreikuspena hedatu eta orokortzeko prozesua gidatzeko arduraduna izango da. Horrez gain, hori aplikatu beharreko neurrien eta eskuratu beharreko xedearen arteko koordinazio egokia bermatzeko diseinatu da.

Gizarte-aurreikuspen osagarria orokortzeko nahiaren funtsa Gizarte Segurantzako pensioen sistema publikoaren iraunkortasuna eztabaidan jartzea da, banaketa- eta solidaritate-izaera duen finantza-araubidean oinarritutako sistema, bederen.

Gaur egungo pensioen sistema publikoaren bideragarritasunari begira gizartean alarma sortu nahi da, batik bat, gizarte-aurreikuspen osagarriaren sistemen hedapena ezinbestekoa delako. Gainera, gizarte-aurreikuspenaren sistema horiek ekarpenak kapitalizatzen araubidea aplikatuta finantzatu dira. Ondorenez, pensioen sistema publikoen solidaritate-mekanismoak baztertuta geratuko dira.

Beste alde batetik, gizarte-aurreikuspen osagarriaren sistemek, praktikan, alokairuen kostu gehigarria dakartzate, hain zuzen ere, Gizarte Segurantzaren egindako kotizazioen gehikuntza. Hala ere, diruzko ekarpenak finantza-merkatuetara bideratuko dira, pensioen sistema publikoaren kalterako.

Gizarte-aurreikuspen osagarriaren sistemei begira ditugun erreserba ideologikoez gain, orobat, epe luzean aurrezteko sistema horiek jasotako abantailazko zerga-tratamenduak eragiten duen zerga-kostuaren gaineko balorazio negatiboa egin nahi dugu.

Pentsio-planetara eta BGAEtara egindako ekarpenen ondorioz 2006an balioetsitako zerga-gastuen zenbatekoak 388 milioi gainditu ditu, eta ogasunen aldetik horiek bildu gabe geratuko dira.

Horrenbestez, zerga-bilketaren galera garrantzitsua sortzen da, beste datu batzuekin alderatuta, adibidez: Eusko Jaurlaritzak 2006an etxebizitzaren sustapen publi-

koari 180 milioi eman dizkio, 83 milioi Seme-alabak dituzten Familiei Laguntza emateko Erakundeen arteko Planari, 54,5 milioi Enpleguaren Erakundeen arteko Planari, edo 30 milioi Gizarte-Larrialdietarako Laguntzei.

Arrazoi guzti horiek direla bide, eta gizarte-aurreikuspen osagarriaren sistemen sustapenean lankidetzan aritzearen aurka gaudenez, Gizarte-aurreikuspen Osagarriaren Planaren aurkako iritzia agerian uzten dugu.

Gisa berean, Gizarte-aurreikuspenaren Euskal Kontseilua sortzeko aukeraren aurka gaude, gizarte-aurreikuspen osagarria sustatu, hedatu eta defendatzen duen organoa da eta.

**Rafa Izquierdo**  
LABen ordezkaria EGABn